

berriak

Triforio

-tik



araba
álava

Urri musikala

Katedralak musikarekin bi hitzordu berri hartuko ditu hil honen bigarren hamabostaldian. Larunbatean, hilak 21, Nafarroako Ganbera Koralk abestuko du eta, zazpi egun geroago, Elizpea izango da Karlos Subijanaren lan berriaren biraren itxieraren eszenatokia. Eta azaroaren 4an Aitzina Folk-en txanda izango da.

Nafarroako Ganbera Koralkaren emanaldiak Heinrich Schütz (1585- 1672) konpositore alemaniarren figura hurbilduko du Arabako ikus-entzuleengana, konpositore horren hainbat obratan oinarrituta sortutako Un Mesias "Avant la Lettre" proiektuarekin.

Astebete geroago, urriaren 28an, beste musika-tresna batzuen artean txirula, alboka edo txalapartaren birtuosoa den Karlos Subijanaren txanda izango da. Emanaldia oso berezia izango da, izan ere, bere jaioterriko, Arabako, zazpi kua-driletara heldu den "Doinu miresgarriak Leku miresgarriak" birako azken kontzertua izango da.



Aitzina Folk

Bestalde, Aitzina Folk azaroaren 4an itzuliko da katedralera, XXI. mendeko euskal musikari egindako begirada iraultzailea den "Sustraien matxinada", proiektua aurkeztera etorriko den Gorka Hermosak eta Garikoitz Mendizabalek osatutako bikotearekin.



IN MEMORIAM JESUS IBISATE

Joan den maiatzean **Jesús Ibisate** joan zitzaigun, besteei modu anonimo eta desinteresatuan laguntzen zien bihotz eta ontasun handiko pertsona; heziketa bikaineko gizona, bere lanbideaz, txirrindularitzaz eta Vitoria-Gasteizez eta bertako Katedral Zaharraz maitemindutakoa.

Beti maitasunez eta esker onez gogoratuko dugun Katedralako mezenas handia eta Fundazioaren lagun ona hil da.

Maila pertsonalean, bere xalotasun eta ontasunarekin arrastoa uzten dizuten horietakoa izan da Jesus. Beti izango zaitut gogoan eta bihotzean.

Goian bego, Jesus maitea

Jon Lasa



Abantailak bazkideentzat

Fundazioko bazkideek sarrerak erreserbatzeko lehentasunezko epea izango dute urriko edo azaroko hiru kontzertuetako edozeinetara joateko. Horrela, **urriaren 15era arte 945 255 135 telefono-zenbakira deituz erreserbatu ahal izango dute beren gonbidapena.**

Urriaren 16an, 10:00etatik aurrera jarriko dira eskura jende guztiarentzako gainerako gonbidapenak –aldi berean Bisitarien Zentroan eta www.catedralvitoria.eus webgunean–.

Egunak eta ordutegiak:

2023/10/21 19:30ean nabean

2023/10/28 19:00etan elizpean

2023/11/04 19:00etan elizpean

Elkarren ondoan: Fundazioaren eta Aldundiko zerbitzu teknikoaren arteko lankidetzak

IV. Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazio Saila

Azken urteotan, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazio Saila funtsezko zutabe bihurtu da Katedrala eta haren bisita gidatuen "Obretan eta irekita" programaren sustapenean.

2016. urteaz geroztik, lankidetzak horrek bisitariaren esperientzia eraldatzea eta kultura-ondarea zabaltzea ahalbidetu du. Monumentuaren inguruko seinaleak berri-zirenetik abangoardiako web-plataforma abiarazi zen arte, lankidetzari esker informazio garrantzitsua eskuratu eta erreserbak modu eraginkorragoan egin ahal izan dira, bisitei eta Katedralako Aterpetxeari dagokienez. Era berean, audiogida eta irratigida gisako ekipamendua erosi ahal izan dugu, bisita gidatuko taldea hainbat hizkuntzatarara egokitzeko.

Lankidetzak polikromia-ikuskitzuna egokitzea ere bultzatu du bisita guztietan sartzeko, eta urtero bisitatzen gaituzten milaka ikasleen artean arrakasta handia izan duen haurrentzako diseinu espezifiko bat ere egin da.

Katedralaren dimentsio artistikoari ere mesede egin dio bi taldeen arteko lankidetzak; izan ere, Katedralako artelanei buruzko



ikerketa osatu eta zabandu, eta lan horiek xehetasun handiz ikusteko webgune bat garatu ahal izan da. Gainera, bitxi horiek jatorrizko testuinguruan miresteko bisita espezifikoak sortu da.

Gainera, bi taldeek ahaleginak batu ditugu nazio eta nazioarteko azoka eta sustapen-kanpainetan, bai eta errealitate birtuaren bidez ikerketa historikoak zabaltzen ere, hala nola animaziozko "Los orígenes de Vitoria-Gasteiz" film laburrekin eta 360º bideoekin. Elkarlanean jarraitzen dugu eta laster ikus-entzuleek ekimen berriak izango dituzte arlo horretan.



Katedralaren erdiko nabea eta transeptua bete egin ziren Koloniako Filarmonikako Gambera Orkestraren kontzertuaz gozatzeko. Musika klasikoaren arloan nazioarte mailan ezagunenetakoa den talde horren emanaldiak interes handia piztua zuen aurretik, eta, ondorioz, sarrerak salgai jarri eta egun gutxira agortu ziren.



22.000 bisita baino gehiago udan

Udako erdialdeko hilabeteetako bisiten balantzeak zifra nabarmenak utzi zituen berriro katedralan. Uztailean eta abuztuan 22.542 bisitari erregistratu ziren (2022an 21.579 eta 2019an 20.898). Jatorriari dagokionez, Madril, Andaluzia, Valentziako Erkidegoa eta Katalunia izan ziren jatorri-gune nagusiak Estatuari dagokionez; nazioartean, berriz, Frantzia, Italia eta Alemania nabarmendu ziren berriro.